# Kultura Etxearekiko harreman telematikoa urteko dirulaguntzaren eskabidea egiteko

Getxo
bizi ezazu

Getxoko Elkarteentzako urteko dirulaguntza esleitzeko deialdia honako esteka honetan dago ikusgai: [www.getxo.eus/kulturadeialdiak](http://www.getxo.eus/kulturadeialdiak)

Horretan ere, Kultur Etxeak abian jarritako eta indarrean dauden beste zenbait deialdi kontsulta daitezke, bai eta amaitutako deialdien informazioa.



Dirulaguntzaren eskaera bidaltzeko atalean sartzeko jarraitu beharreko urratsak:

Lehenik eta behin, Getxoko Administrazio Elektronikoko Bulegoan sartu behar da: https://eudala.getxo.eus

Aukeratu nola identifikatu eskeinitako hiru aukeren artean:



Identifikatu ondoren, pantaila hau agertuko da:



**Nire erregistro telematikoa (Eskaerak)** atalaren barruan, klikatu **Egin Eskaera**-n eta ondoren **Kultur Etxea**-n.

Hemendik egin daiteke eskabidea.



Jarraian, **Datu Orokorrak** atalaeko **Eskaera-ohar Gaia** azpiataleko goitibeherako laukiaren erlaitzean klikatu egin behar da eta **Diru-laguntzak / laguntzak** aukeratu.




Getxo bizi ezazu

Ondoren **Eskaera-ohar Gaia** azpiataleko goitibeherako laukiaren erlaitzean klikatu egin behar da eta **Getxoko udalerriko kultur elkarteei urteko Dirulaguntzak emateko deialdia 2003. 1. Eskaera.** aukeratu.




Getxo
bizi ezazu

Eskabidearen deskribapen laburra dagokion laukitxoan sartu ondoren. Formularioan eskatutako datuak bete beharko dira (izartxo gorria duten eremuak nahitaezkoak dira) eta eskatutako dokumentuak plataformara igotzea.

Garrantzitsua da, gainera, inprimakiaren goiburuan deialdiaren izena agertzen dela egiaztatzea.

Dokumentuak, irudiak eta abar fitxategi bakar batean konprimatzeko doako software-a behar bada, 7-zip erabil daiteke, esteka honetan eskuragarri: [https://7zip-es.updatestar.com/](https://7zip-es.updatestar.com/)




Inprimakia bete eta fitxategiak erantsi ondoren, **Eskaera bidali** (orriaren amaieran) botoian klik egin beharko da amaitzeko.

Eskaera egiteko, ezinbestekoa da elkarteentzako ziurtagiria (erakundearen ordezkariaren ziurtagiria) eta BAKQ motako ziurtagiri digitala izatea.
Jarraian zehazten diren eranskinetan, horiek nola eskatu azaltzen da, horrelakorik ez badago.

Getxo
bizi ezazu

# Elkarteentzako ziurtagiria eskatzea: (1. eranskina)

Izenpen lor daiteke **Nortasun Ordezkariaren Ziurtagiria**, zita eskatuz, telefono honetara deituz: «**900 840 123**».

Izenperen bulegoa **astelehenetik ostiralera zabalik dago, 08: 15etik 15: 45era, Kale Nagusia 85, Bilbo.**

Mahaiburua edo ahalduna bertaratu beharko da (idazkaria bertan egotea ez litzateke beharrezkoa izango, baldin eta Izenperen 7. orrialdeko dokumentua sinatzen badu). (1. Eranskina)

**<u>Aurkeztu beharreko dokumentazioa:</u>**

**- Presidentearen edo ahaldunaren NANa.**
**- Jatorrizko IFK eta kopia.**
**- 7. orrialdeko dokumentua (idazkariaren sinadurak barne) Garrantzitsua: dokumentu honetan jartzen den datak 10 eguneko balioa du.**

(Izenperen webgunearen bidez ere izapidetu daiteke, baina presidenteak eta ahaldunak BakQ pertsonala izan beharko dute).

**<u>Ziurtagiria lortzeko hiru modu daude:</u>**

- Izenperen txartela, dagokion irakurgailuarekin batera (60,00 €).
- Toquen edo pendrivea (hasierako 90,00 €eta gero 60,00 €).
- Softwarea (60,00 €) *(Izenpek azken hau gomendatzen du).*

Ordainketa banku-txartelarekin bakarrik onartzen da.

Hiru modalitateak 4 urtean behin berritzen dira, eta estatu mailako kudeaketak egiteko ere balio dute.

Ziurtagiria eta gakoak hitzorduaren unean emango zaizkizu.

Dokumentazioa baliozkotu ondoren, Izenpek ziurtagiria emango du hautatutako euskarrian, eta postaz bidaliko du, modu seguruan, eskabidean adierazitako helbidera.

# BakQ pertsonalaren eskaera: (2. eranskina)

**<u>Nola lortu?</u>**

BakQ lortzeko bi modu daude:

- Izenperen herritartasun-ziurtagiri bat (txartel berdea) baduzu, aurrez aurre lortua, edo NANe bat baduzu, BakQ eska dezakezu **online eskaeren bidez**.
- Online irtenbiderik ez baduzu, aurrez aurreko arreta-gune hauetara jo behar duzu hori eskatzeko:

**- KZgunea Algorta** - Algorta Hiribidea, 98, 1.a Solairua. Tel.: 944 03 33 60
- **KZgunea Las Arenas** - Santa Eugenia kalea 1, 3. solairua. Tel.: 944 03 33 61

**<u>Nola emititzen eta aktibatzen da BakQ?</u>**

Eskaera arreta-gune batean bete ondoren, mezu elektroniko bat jasoko duzu. Bertan koordenatuak eta igorpen- eta aktibazio-prozesurako esteka bat egongo dira.

**Igorpen- eta aktibazio-prozesua:**

- SMS bat jasotzen da pasahitzarekin, eta pasahitz berri eta gogoraerraz batengatik aldatu beharko duzu.
- Datu pertsonalak egiaztatzen dira eta BakQ erabiltzeko baldintzak onartzen dira.
- Autentifikazioa egiten da lehen aldiz, hodeian sinadura-ziurtagiria egin ahal izateko.
- BakQ prest egongo da nahi diren online harremanetan egiaztatzeko eta sinatzeko.

Getxo
bizi ezazu

# 1. Eranskina

**ELKARTEAK**

✓ Gida hau mota hauetako ziurtagiriei aplikatuko zaie:

*Ordezkaria.*

- Pertsona fisikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa jaulkitako ziurtagiria.
- Erakundeari lotzen zaio eta identifikatutako pertsona fisikoa legezko ordezkaria dela egiaztatzen du.

*Profesionala-Korporatiboa.*

Sektore publikoko zein arlo pribatuko erakunde baten esparruan jaulkitzen da.

Motak.

➢ *Profesionala-Korporatiboa, kualifikatua*

- Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzen da.
- Erakunde jardulea identifikatzen du, baita bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona ere.

➢ *Profesionala-Korporatiboa, kualifikatu gabea*

- Erakunde jardulea ziurtagiriaren harpidedun gisa identifikatzen du ziurtapen-maila ertainarekin, eta bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona gakoen edukitzaile gisa identifikatzen du.
- Ez da kualifikatutzat hartzen.

*Entitate-zigilua*

- Pertsona juridikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa jaulkitako ziurtagiria.
- Ziurtagiri horrek entitatea identifikatzeko aukera ematen du, baita, hala badagokio, pertsona eskatzailea ere.
- Era berean, aukera ematen du frogatzeko entitateak jaulki duela dokumentu elektroniko jakin bat, eta dokumentuaren jatorriaren eta integritatearen ziurtasuna eskaintzen du.

✓ Kasuan-kasuan aplikatzekoa den eta www.Izenpe.eus web-gunean argitaratu den *Ziurtapen Politikoaren* esparruan ulertu beharko da.



**ELKARTEAK**

**ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA**

1. ZIURTAGIRIA ESKATZEA.

Izenperen web-gunean sartuta, osatuko du eskatzaileak ziurtagiria eskatzeko formularioa.

Eskaera sinatuta, eskatzaileak ziurtagiriaren terminoak eta baldintzak onartuko ditu.

2. PERTSONA FISIKO ESKATZAILEAREN NORTASUNA EGIAZTATZEA

Izenpek eskatzailearen nortasuna egiaztatuko du,

✓ **Aurrez aurre**, erregistro-entitatearen aurrean, indarrean dauden agiri hauen bidez,

- Espainiako hiritarra bada, NANa, pasaportea edo gida-baimena.
- Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZ eta pasaportea edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionala.
- Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, AIZ eta pasaportea.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, Izenpek zehaztuko du kasuan-kasuan beharrezkoa den dokumentazioa.

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gehitu beharko du, edo Izenperi baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.

✓ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaerako sinadura **notarioaren aurrean legitimatuta**.

✓ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren **sinadura** egiten denean eNAN bidez, pertsona fisikoaren **ziurtagiri kualifikatu** bidez edo entitatearen ziurtagiri bidez edo nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri bidez, Izenpek jaulkitakoak biak.

3. ERAKUNDEAREN EGIAZTAPENA ETA ESKATZAILEAREN AHALMENAK

Hauek aurkeztu beharko dira:

➢ Erakundearen IFZ: jatorrizkoa eta kopia.

Ziurtagiriaren lehen jaulkipenean soilik aurkeztuko da.



Getxo
bizi ezazu

- Batzarreko idazkariak jaulkitako jatorrizko ziurtagiria, eskatzaileari eskatzen zaion ahalmena egiaztatzen duena, ziurtagiria eskatzen den egunaren aurreko hamar egun baliodunetan jaulkia eta presidenteak ikus-onetsia. Honako ahalmen hauek egiaztatuko ditu:
  - Legezko ordezkaria
    - Presidentea edo ordezkari solidarioa.
    - Ordezkari erkidetuak,
      - Eskatzaileak ordezkari erkidetuen nortasunaren eta jarduteko moduaren dokumentazio egiaztatzailea aurkeztu beharko du.
      - Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran, ordezkari erkidetuetako bakoitzaren sinadura jasoarazi beharko da identifikazio-dokumentuaren zenbakiarekin batera (indarrean dagoen NANa, pasaportea edo gida-baimena, AIZ).
  - Erakundea orotariko pertsona pribatuen edo publikoen aurrean ordezkatzeko ahalmena duen ordezkaritza-ahaldun orokorra izanez gero,

    Eskatzaileak ahalmen hori egiaztatuko duen notario-eskrituraren jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko du.
  - Edo ziurtagiria lortzeko eta erabiltzeko ahalordetze-klausula berezia eta zehatza duen ahalordea.

    Eskatzaileak ahalmen hori egiaztatuko duen notario-eskrituraren jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko du.

✓ Ordezkariaren ziurtagiriaren kasuan, sinatzailearen ahalmenak egiaztatzen dituen dokumentu publikoaren kodetzea jasoarazi beharko da.

## 4. ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

Ondoren, Izenpek ziurtagiria jaulkitzeari eta emateari ekingo dio, hautatutako euskarriaren arabera.

### Izenperen SOFTWAREA _ EDUKITZAILEA

1. Izenpek hutsik dagoen edukitzaile bat bidaliko dio eskatzaileari, posta elektroniko bidez, eskaeran adierazitako helbidera.
2. Eskatzaileak edukitzailea hasieratuko du, eta gako-parea eta eskaera teknikoa (csr) sortuko du.
3. Eskatzaileak Izenperi bidaliko dio eskaera teknikoko fitxategia (csr).
4. Izenpek ziurtagiria jaulkiko du, eskatzaileak bidalitako eskaera teknikoa erabilita.
5. Izenpek eskaera-formularioan adierazi den helbide elektronikora bidaliko du ziurtagiria.





### TXARTELA / TOKEN USBa

- Bertaratuta ematea.

  Izenpek eskatzaileari edo hirugarren baimenduari emango dio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUKa) —hirugarren baimenduak baimen sinatua eta notarioak legitimatua aurkeztu beharko du—.

- Bertaratu gabe ematea.

  Izenpek bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira. Izenpek egiaztatuko du gakoen edukitzaileari soilik egiten zaiola bidalketa.

### HSMa

Izenpek
- Haren HSMan sortuko du ziurtagiria, baita erabiltzaile bat eta pasahitz bat ere (gakoen edukitzaileari soilik ematen zaizkiola bermatuko du).
- Mezu elektronikoa bidaliko du *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbidera, hura erabiltzeko argibideekin batera.

## 5. ZENBATEKOA

Ziurtagiriaren eskatzaileak ordaindu beharko du ziurtagiriaren zenbatekoa, betiere hautatutako ordaintzeko moduaren arabera.

Izenpek urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.eus web-gunean.



Getxo bizi ezazu

## ELKARTEAK

Eranskina_PROPOSATUTAKO EGIAZTAGIRI EREDUA

Izenpek **jakinarazten dizu** egiaztagiri-eredu honen xedea dela erabiltzaileari sinadura elektronikoko ziurtagiriak eskatzeko balizko egiaztagiri-eredu baten inguruan orientatzea.

---

_______________________________ jaunak/andreak, IFZ duen _______________________ (entitatearen izena, estatutuetan jasoarazi den moduan) entitatearen idazkari gisa

**ZIURTATZEN DU**

1. _______________________________ entitatea (entitatearen izena estatutuetan jasoarazi den moduan idatzi beharko da), IFZ _______________ duena, balioz eratu dela eta indarrean eta inskribatuta dagoela Erregistroan.
2. _______________________________ jaunak/andreak (ziurtagiriaren eskatzaileak) duen ordezkaritza, honako honen ondoriozkoa dela:

   ☐ ___________(e)ko datako ______________________aren (biltzarraren, gobernu-organoaren,...) ondoren egindako egiaztagiriaren indarrez legezko ordezkaria da eta ordezkaritza hori indarrean dago.

   Ordezkari erkidetuen kasuan,

   - Eskatzaileak ordezkari erkidetuen nortasunaren eta jarduteko moduaren dokumentazio egiaztatzailea aurkeztu beharko du.
   - Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran, ordezkari erkidetuetako bakoitzaren sinadura jasoarazi beharko da identifikazio-dokumentuaren zenbakiarekin batera (indarrean dagoen NANa, pasaportea edo gida-baimena, AIZ).

   ☐ Administrazioen aurrean ordezkatzeko ahaldun orokorra da.
   ☐ Ordezkaritza-ahaldun orokorra da erakundea orotariko pertsona pribatuen edo publikoen aurrean ordezkatzeko ahalmen inskribatua duena.
   ☐ Edo ziurtagiria lortzeko eta erabiltzeko ahalordetze-klausula berezia eta zehatza duen ahalordea du.
   Eskatzaileak ahalmen hori egiaztatuko duen notario-eskrituraren jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko du.

| I.O. PRESIDENTEA | IDAZKARIA |
|---|---|
| DATA | |



## ELKARTEAK

ERANSKINA_HIRUGARREN BATEK ZIURTAGIRIA JASOTZEKO BAIMENAREN EREDUA

Izenpek honako hau **jakinarazten dizu**:

- Dokumentu honen helburua dela hirugarren bati ziurtagiria jasotzeko zuzendutako baimenaren balizko eredu bati buruzko argibideak ematea erabiltzaileari.
- Baimena notario aurrean eman beharko dela eta pertsona baimen-emailearen sinadurak legitimatuta egon beharko duela.

---

_______________________________ jaunak/andreak (ziurtagiriaren eskatzaileak)

BAIMENTZEN DIO

_______________________________ jaunari/andreari (ziurtagiria eskatzeko pertsona baimenduari) NAN _______________ duenari, dokumentu honi gehitzen zaion eskaeraren esparruan, bere izenean jasotzeko:

☐ Sinadura elektronikoko ziurtagiria, PINa, PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidezko identifikaziorako pasahitza jasotzen duen orria, eskatzaileari osorik emateko.

☐ Erregistro kode bakarra (EKB), nabigatzailearen edo gailu mugikorraren euskarrian jaulkitako ziurtagirien kasuan.

☐ Erabiltzailea eta pasahitza, Egoitzan jaulkitakoa bada.

Baimen horren ondorioz, Izenpek ez du zaintzan eta, ondorengo, entregan izan daitezkeen inguruabarretan inolako erantzukizunik izango.

Aurrekoa irakurri eta horrekin ados egonik, nirekin sinatu du.

| Notarioa | Baimen-emailea |
|---|---|
| Data eta sinadura | Data eta sinadura |

**ELKARTEAK**

Entitatearen izena (eratze-dokumentuan jasoarazi den moduan adierazi beharko da) ________________________________, ________________ IFK duena

☐ Elkarteak
☐ Kirol-elkarteak
☐ Aldi bat. Enp. Elk.
☐ Elkargo profesionalak
☐ Ureztatze-erkidegoak.
☐ Jabeen erkidegoak

☐ Sindikatuak
☐ Ikastetxeak
☐ Udalak

________________________ jaunak/andreak, idazkari/gerente den aldetik (azken kasua aldi baterako enpresa elkarteen kasuan)

ZIURTATZEN DU

– Entitatea balioz eratuta eta indarrean dagoela.

________________________ jaunak/ andreak

dokumentu honi txertatzen zaion eskaeran adierazitako ziurtagiria eskatzen du, kargu hau duen aldetik:

- ☐ Legezko ordezkaria (presidentea / gerentea, aldi baterako enpresa elkarteen kasuan / alkatea).
- ☐ Ordezkaritzako ahaldun orokorra, erakundea orotariko pertsona pribatuen edo publikoen aurrean ordezkatzeko ahalmena duena.
- ☐ Edo ziurtagiria lortzeko eta erabiltzeko ahalordetze-klausula berezia eta zehatza duen ahalordea.

Data ________________________

Sinadura.

Idazkaria / Gerentea (ABEE).

Ikus-onetsia, presidentea / alkatea

☐ Ondasun-erkidegoak
☐ Jaraunspen jasogabeak
☐ Sozietate zibilak.

________________________ jaunak/andreak

________________________ jaunak/andreak

________________________ jaunak/andreak

gaur egun erakundeko kide diren aldetik.

HONAKO AITORPEN ERANTZULE HAU EGIN DUTE

– Entitatea balioz eratuta eta indarrean dagoela.

- Gehiengoz erabaki dutela ________________________ jn./and. izatea ziurtagiria eskatzeko izendatuko den erakundeko kidea.

Data ________________________

Sinadura Sinadura

Sinadura Sinadura

Getxo bizi ezazu

2. Eranskina

**Zer da?**

**BakQ identifikazio elektronikoko bitarteko bat da, herritarrari aukera ematen diona administrazioekin modu telematikoan segurtasun osoz harremanetan jartzeko.**

**Oso erabilerraza da eta ordenagailuetan zein telefono mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragilerekin eta ezer instalatu beharrik gabe.**

**Zertan datza identifikazio-bitarteko hau?**

- **Pertsonaren NAN/AIZ.**
- **Pasahitza.**
- **SMS bidez mugikorrera bidalitako kode bat.**

**Eta, gainera, ziurtagiri kualifikatu bat, biltegi zentralizatu batean (hodeian) jaulkitzen dena eta elektronikoki sinatzeko erabili ahal izango dena.**

¿Qué es?

BakQ es un medio de identificación electrónica que permite a la ciudadanía relacionarse telemáticamente con las administraciones con total seguridad.

Es muy sencillo de usar y se puede utilizar tanto en ordenadores, como en móviles y tabletas, en cualquier sistema operativo y sin necesidad de instalar nada.

¿En qué consiste este medio de identificación?

- El DNI/NIE de la persona.
- Una contraseña.
- Un código enviado por SMS al móvil.

Y, además, un certificado cualificado emitido en repositorio centralizado, en la nube, que servirá para los actos de firma electrónica.

## 01 BakQ eskatzea eta jaulkitzea

## Solicitud y emisión de BakQ

**BakQ baliabidearen segurtasun-maila handia dela eta, identifikazio presentziala egin beharko da, jaulkipena amaitu aurretik.**

**Horixe izango da kudeaketa presentzial bakarra, prozesuaren gainerakoa erraz eta online egin ahal izango baita.**

Debido al elevado nivel de seguridad de BakQ, se requerirá la identificación de forma presencial antes de seguir con la emisión completa.

Esta será la única gestión presencial, el resto del proceso podrá hacerse de forma sencilla y online.




Getxo bizi ezazu

## 02 Datuak eta pasahitza baieztatzea

Confirmar datos y contraseña

**Eskaera presentzialaren ondoren, prozesuarekin jarraitzeko mezu elektroniko bat jasoko duzu. Ziurtatu datuak zuzenak direla.**

Tras la solicitud presencial llegará un correo electrónico para seguir con el proceso. Asegúrate de que los datos son correctos.




**Hurrengo urratsean, jaso duzun pasahitza aldatu ahal izango duzu eta gogoratzeko errazagoa izango zaizun beste pasahitz pertsonal bat jarri ahal izango duzu.**

En el siguiente paso se debe cambiar la contraseña recibida por una personal y más sencilla de recordar.

**Harremanetarako datuak baieztatzean, SMS bidez jasoko duzu pasahitza.**

Al confirmar los datos de contacto llegará una contraseña vía SMS.

## 03 Autentifikazio

Autenticación

**Prozesuarekin jarraitzeko, lehen aldiz erabiliko da BakQ. Datu hauek eskatuko ditugu:**

Para continuar con el proceso se usará BakQ por primera vez. Solicitaremos:





## 04 BakQ jaulkitzea

## Emisión BakQ

**Terminoak eta baldintzak onartzearekin amaituko dugu BakQ-ren jaulkipena. Erabilgarri duzu giltza orokorra!**

Aceptando los términos y condiciones concluiremos la emisión de BakQ. ¡Ya tienes la llave maestra!



**Hemendik aurrera, BakQ bidez sartu ahal izango zara edozein euskal administrazioren bulego birtualetara edo egoitza elektronikoetara.**

A partir de ahora podrás acceder con BakQ a las oficinas virtuales o sedes electrónicas de cualquier administración vasca.

**NON ESKA DEZAKET NIRE BAKQ?**
¿DÓNDE PUEDO SOLICITAR MI BAKQ?

### Bulego presentzialak | Oficinas presenciales

**Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean arreta presentzialeko bulegoak Bilbon, Donostian eta Gasteizen.**
Oficinas de atención presencial Zuzenean de Gobierno Vasco en Bilbao, Donostia-San Sebastián y Vitoria.

**Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiko arreta presentzialeko bulegoak.**
Oficinas de atención presencial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Bizkaia.

**Edozein KZgune.**
Cualquier centro KZgunea

**Zure udaleko herritarrarentzako arreta-bulegoa.**
La oficina de atención al ciudadano de tu ayuntamiento.

**Dagokizun Osakidetzako zentroko erakusmahaia.**
Mostradores del centro de Osakidetza que te corresponda.

**IZENPEren arreta presentzialeko puntuak.**
Puntos de atención presencial de Izenpe.

BAKQ

**Edozein informaziotarako:**
Para cualquier información:

**900 840 123 (945 01 62 90)**

**www.izenpe.eus**

Getxo bizi ezazu